



## Ordiziako hondakin mahaiaren bilera

2017/04/04 Udaletxean 18.00-19:30



### Gaurkoan bildu gara,

- Iñaki Dubreuil (PSE)
- Patxi Arrospide (Herritarra)
- Jose Ignacio Mendizabal (Herri plataforma)
- Manolo Iturrioz (EAJ)
- Edurne Huesa (Landarlan)
- Miren Nekane Apaolaza (Herritarra)
- Joseba Aranburu (Alkatearen izenean)
- Juan Ignacio Alonso (Ordizia Orain)
- Rosa Aurkia (Ingurumen teknikaria)

Bere ez egotea justifikatu du: Adur Ezenarro (Bildu)

### Gai ordena

Bileran ondoko gaiak landu ziren:

1. Aurreko aktaren onarpena
2. Irabazi: Edukiontzien ordainketa
3. Edukiontzien bidezko sistemaren jarraipena
4. Ordenantza

### Aurreko aktaren onarpena

Aurreko aktan, Landarlanek Sasietako datuen interpretazioa EAJko kideak egin zuela zehazteko eskatu da.

Hau aldatu eta berriro bidaliko da akta moldatua. Egun batzuk emango dira aztertzeko eta ondoren aldaketarik ez badago, onartutzat emango da.

### Beste gai batzuk

Aurreko bileran, hondakinen karakterizazioa egiteko eskolekin hitzarmen bat sinatu daitekeela esan zen.

Landarlan: Eskolei hau eskatzea gehiegizkoa da, karakterizazio hau Udalak egin behar du beharrezkoak diren teknikariek. Ikastetxeak beste herritarrak bezala tratatu behar dira. Karakterizazio bat egiten bada gonbidapena denei luzatzea eskatzen du.

Hondakinen sorrera handitu egin da eta Sasietari honen inguruko interpretazioa eskatu zaio.



## Ordiziako hondakin mahaiaren bilera

2017/04/04 Udaletxean 18.00-19:30



Aurreko bileran EAJko ordezkariak gorakada hau "turismo basura" jaitsi egin delako izan zitekeela komentatu zuen.

Sasietaren erantzuna:

*Nik ez daukat hori hain garbi.*

*Hilabete bat oso gutxi da konparaketak egiteko. Epe luzeagoak hartu behar dira konparaketak egiteko. Gutxienez sei hilabete eta ahal bada urte bete.*

*"Turismo" hori egongo zela ezin da ukatu baina igoera guztia turismoagatik izan dela esatea agian gehiegizkoa da.*

*Bestalde hondakinen sorkuntza egoera ekonomikoarekin oso lotuta dago eta ezin da ukatu Goierri ekonomiak hobera egiten duenean hondakinen sorkuntza ere gora doa. Hori ere ezin dugu ahaztu.*

*Dena ez da inoiz erabat beltza edo erabat zuria izaten.*

*Beraz, ondorioak ateratzerako orduan kontu handiz ibili behar da.*

PSE: Krisiarekin hondakinen sorrera ere gutxitu egin zen baina hau ez zen kuantifikatu.

LANDARLAN: Hondakinen sorrera handitzen ari da eta zerbait anbizioso planteatu beharra dago honi aurre egiteko. Egoera ekonomikoa igotzen denean hondakinen sorrera handitzea ezin da onartu.

TEKNIKARIA: Aste berdean zerbait egin daiteke. Denak pentsatuko dugu.

### **Irabazi: edukiontzien ordainketa**

Irabaziko Carlos lanagatik gaur ere ezin izan du azaldu bilerara.



Hurrengo bilerara emango da gaia.

### **Edukiontzi bidezko sistemaren jarraipena**

IBARBIA KALEA:

Sasietako txostena dugu eta guk planteatutako aukera guztiak arrazoi ezberdinengatik ezinezkoak direla esaten du.

Ondorioz, beste aukera berri bat planteatu diogu, edukiontzi txikiak jartzea (komertzioetan erabiltzen diren bezelakoak) baina bakarrik mugimendu arazoak dituzten pertsonak erabiltzeko.

	<b>Ordiziako hondakin mahaiaren bilera</b>  <b>2017/04/04 Udaletxean 18.00-19:30</b>	
--	--	---

Sasietako erantzuna:

Edukiontzia txikiak ezin dira jarri, komertzioetako bilketarekin hustuko zirelako edukiontzia hauek. Edukiontziak gainezka egingo dute. Edukiontzi handietan ontzi arinak astean 6tan husten dira eta arazoak daude, edukiontzi txiki hauetan ontzi arinen bilketa astean bitan izango zen eta edukiontziak segituan beteko lirateke eta ez dute bideragarria ikusten.

**DENDARIEI BILKETA PERTSONALIZATUA - RECOGIDA PERSONALIZADA A COMERCIOS**

ASTELEHENA LUNES	ASTEARTEA MARTES	ASTEAZKENA MIERCOLES	OSTEGUNA JUEVES	OSTIRALA VIERNES	LARUNBATA SABADO	IGANDEA DOMINGO
	Organikoa Orgánico	Ontzi arinak Envases	Errefusa Resto	Organikoa Orgánico	Ontzi arinak Envases	Organikoa Orgánico
Papera eta kartoia Papel y cartón	Papera eta kartoia Papel y cartón	Papera eta kartoia Papel y cartón	Papera eta kartoia Papel y cartón	Papera eta kartoia Papel y cartón		
<b>Ateratzeko ordua / Hora para sacar → 20.00 – 22.00</b>						

ORDIZIA ORAIN: Pixoihalak biltzeko erabiltzen diren edukiontziak erabili daitezke. Hauek tamaina ertainekoak dira eta frakzio bakoitzerako moldatu daitezke. Edukiontzi hauek aparkalekuan jarri eta egoitzara igotzen den kamioi txikiak hustu ditzake.

NEKANE: Egoitzako hondakinen bilketa nola egiten dan galdetzen du.

TEKNIKARIA: Kamioi txikia egunero igotzen da. Pixoihalak egunero biltzen ditu eta beste frakzioak komertzioetako bilketako egutegiak zehazten duen moduan egiten da.

PSE: Aparkalekuan jarri behar badira edukiontzi hauek, mugikortasun mahaiari gai hau tratatu beharko da. Edukiontziak jarri behar dira eta ikusi nola joaten den. Gaizki joaten bada erabakiko dugu zer egin.

Ibarbia kaleko arazoa konpontzeko hondakin mahaiak pausu hauek ematea adostu du:

- 1- Sasieta Mankomunitateari esan Ibarbia kalean hondakinak bildu beharra daudela.
- 2- Pixoihalentzat erabiltzen diren edukiontziak frakzio bakoitzerako moldatu eta aparkalekuan jarri (eskaileren azpian)

Proposamen honi Sasietak ezezkoa ematen badio, bi proposamen hauek luzatuko zaizkio:



## Ordiziako hondakin mahaiaren bilera

2017/04/04 Udaletxean 18.00-19:30



- a- Mugikortasun arazoak dituzten pertsonentzat edukiontzi txikiak jarri
- b- Atez-ate jarri kale honetan

Bi sistema hauen onurak eta eragozpenak Sasietako Mankomunitateari eskatuko dizkiogu eta ondoren bizilagunekin bilera bat egingo da eta bertan aurkeztuko dira. Bizilagunak aukeratuko dute bi sistemetatik zein nahi duten.

### ITURTZO PUNTUA:

Puntu honetan edukiontziak gainezka daude. Ordiziako erdigunea lau zatitan banatuta dute eta edukiontzi puntuak kale hauetan daude: Juan Amezqueta, Iturtxo, Avenida eta Arana.

Arazo hau gainditzeko, Samperio kalea 1ean beste edukiontzi puntu bat jarriko dute.

### URDANETA KALEA eta BIONA PLAZA (BUZTUNTZAN):

Eskutitz bat bidali nahi da kaleko bizilagunei eta eskutitz honetan sailkapena ondo egiten ez bada isunak jarriko direla zehaztuko zaie.

Sasietako ordenantza dugu orain. Bertan zehaztuta dago faltak zein diren eta zenbateko zigorra dagokion falta bakoitzari.

LANDARLAN: Komunikazioa orokorra izan behar du, herritarrak jakin behar dute isunak jartzen hasiko direla. Ordiziako ordenantza egiten denean isun ekonomikoa izan beharrean komunitateko lanak egitea jarri daiteke isun bezala.

ORDIZIA ORAIN: Isunak jarri beharrean herritarrak informatu egin behar dira. Kaleko hezitzaileak jarri edukiontzi puntuetan azaltzeko hondakinen sailkapena nola egiten den.

PSE: Isuna jarri aurretik informatu egin behar dira baina hori egin eta gero, berdin jarraitzen badu isuna jartzea ondo iruditzen zait.

EAJ: Isunak jartzeko erabakia nondik datorren galdetzen du.

TEKNIKARIA: Zerbitzutako delegaritzan erabaki da.

PSE: Kasu askotan hizkuntzaren arazoak daude eta urlertzeko zailtasunak dituzte.

TEKNIKARIA: Isunaren aurretik beste hainbat gai egiten dira, isuna azkeneko pausua da. Lehenengo identifikatu diren pertsonekin bilerak egin dira hondakinen sailkapena egin behar dutela esateko eta nola egin behar duten



## Ordiziako hondakin mahaiaren bilera

2017/04/04 Udaletxean 18.00-19:30



informatzeko. Gaizki egiten jarraitzen badute orduan isuna jartzea planteatzen da.

LANDARLAN: Edukiontzi puntuetan kale hezitzaileak egon beharko lukete (astean behin, bitan,.....) informazioa emanez. Eskatera hau zerbitzutako delegaritzara ematea eskatzen du.

LANDARLAN: Iturtxoko gaia mahai honetan planteatu da baina beste puntu hauetakoa ez da guregana iritsi.

TEKNIKARIA: Herritarrak kexa hauek jarri dituzte eta zerbitzutako delegaritzan tratatzen dira. Herritar hauei erantzuna eman behar zaie. Prozedimenduak martxan jarri beharra dituzte. Delegazioan Udaltzaingoak parte hartzen du eta beraiek obligazioa daukate isuna jartzeko.

Hondakin mahaiaren adostutakoa: Edukiontzi puntuetan kale hezitzaileak egon beharko lukete informazioa emanez. Eskatera hau zerbitzutako delegaritzara ematea adosten da.

### ORGANIKOAREN ETA ONTZI ARINEN KARAKTERIZAZIOKO DATUAK

Organikoa: Ordizian inpropioak %3,6 bateko datua ematen du.

Ontzi arinen datua: Batez besteko datua da. Edukiontzietako datua okerragoa da atez atekoa baino. Sasieta Mankomunitatean ontzi arinen bereizketaren inguruko sentsibilizazio kanpaina bat egin behar dute.

### Ordenantza

Ordenantza lantzen hasteko denborarik ez dago.

Hurrengo bileran lehenengo gaia bezala joatea gai ordenean adosten da.

- Aurreko akta
- Ordenantza
- Hainbat gai
- Aste berdea (sentsibilizazio kanpainak)

### Hurrengo bilera

Maiatzeko bilera: maiatzaren 9an arratsaldeko 18:00etan.

LANDARLAN: Erraustegiaren inguruko iradokizun batzuk egin ditu.